


noaua

ZUMARTE MUSIKA ESKOLAK HAINBAT IKASTARO ANTOLATU DITU

'Musika 0-3 urte', ukelelea, alboka, gitarra eta dultzaina ikasteko aukera izango da / 08-09



ARGAZKIA: ZUMARTE MUSIKA ESKOLA



NOAUA

DYako egoitzan egokitutako ikasgela urte osoan egongo da zabalik / 03




NOAUA

"Buruntzaldeko Ibilbideen Eguna publiko guztiarentzat da egokia" / 15



NOAUA

Sorgina Txirulina: "Ipuinak eta kantak uztartuko ditut Aginagako saioan" / 16



NOAUA

Ostiral honetan Sutegin, Oskar Alegriaren film berria ikusgai / 22



**FUNERARIA
GONZALEZ**
EHORZTETXEA

munalurra 8, USURBIL

**OCASO, SANTALUCIA...IZANEZ GERO,
HERIOTZA GERTATZEN BADA,
DEITU ZUZENEAN GURE BULEGORA 24H,
(edo aseguruari gure zerbitzuak eskatu).**

MOMENTU LATZETAN DENETAZ ARDURATZEN GARA

943 36 21 63 (24H)

•BEILATOKI GUZTIAK: USURBIL, ERREKALDE...ERRAUSKETAK



www.funerariagonzalez.es



NOAOAK
BIDAIAK



Japón

IRTEERA 2025eko martxoan

Noaoak gidatutako talde bidaiak.
Lasarte-Oriatik irtenda.


943 37 36 13 • info@noaoa.eus • Hipodromo Etorbidea, 10 • Lasarte-Oria



URRIAK 24, OSTEGUNA

Aginagako Eliza Zaharrean

18:30tan DOAN



ALKARTASUNA
Usurbilgo Baseritarren Kooperatiba

Sagardo dastaketa kluba

Izotz sagardoa egiteko ikastaroa
eta dastaketa gidatua

**Zer da izotz sagardoa?
Nola egiten da?**

Irakaslea
Egoitz Zapiain

DYAn dagoen ikasgelak zabalik jarraituko du

Orain arte azterketa garaietan baino ez zen egoten zabalik. Aurrerantzean, etenik gabe urte osoan zehar irekita egongo da Usurbilgo Udalak DYAk Munalurran duen egoitzan egokitua duen hamasei lagunentzako ikasgela.

Astelehenetik igandera

Udaletik jakinarazi dutenez, astearte honetatik aurrera, egunero irekiko da gune hau, astelehenetik igandera, 8:00-22:00 artean. Finkoa izango da ordutegia, gunea ordea, behin-behinekoa. Erabaki hau herritarrek Udalarari egi-

niko eskaeren harira hartu da, lokal utzia zion DYArekin adostu ostean. “Dena den, DYAk bere erabilerarako gela propio bat izaten jarraituko du bertan, eta gainerako espazioa ikasgelak hartuko du”, ohartarazi dute Udaletik.

Gogoan izan, Sutegin bade-la ikasteko espazioa baina desegokitzen jo izan dute hainbat erabiltzaileek. “Arazo hori bideratzeko proiektua idatzia du udalak, eta bitan argitaratu du lizitazioa: bi aldietan, ordea, hutsik gelditu da. Hala, ikasgela egoki baten beharrak bultzatuta, orain arte DYAk



16 lagunentzako ikasgela egokitu dute DYaren egoitzan, Munalurran.

erabiltzen duen lokala urtean bitan behin-behineko ikasgela gisa eskaini izan da, eta,

aurrerantzean, modu iraunkorrean erabili ahal izango da”.

Garbigune mugikorra, Mikel Laboa plazan

Urriaren 17tik aurrera, garbigune mugikorra Mikel Laboa plazan izango da. Era honetan, etxeko hondakinen berrera-bilpena eta birziklatzea sustatu nahi da. Hondakinak bere horretan bota, poltsarik gabe. Urriaren 24an osteguna, garbigune mugikorra Aginagara eramango dute.

1969ko kinto bazkaria, urriaren 26an Patrin

Urriaren 19a baino lehen eman behar da izena, 50 euroko ordainketa eginez: ES32 3008 0259 154771916121 (Rural Kutxa). Ordainketa egiterakoan izen-abizenak zehaztea eskatu dute. Bazkari egunean 12:30ean finkatu dute biltzeko hitzordua Atxegaldeko Mahaspildegi elkartearen.

1960an jaiotakoek topaketa

Talde bat sortu dute, hurrengo urtean beteko dituzten 65 urteen harira topaketa bat antolatzeko.

Talde horretan parte hartu nahi duenak deitu dezala 655 720 666 telefono zenbakira edo whatsapp mezua bidali dezala telefono zenbaki horretara.

1973ko kinto bazkaria, Atxega jauregian

1973ko kinto bazkaria azaroaren 16an ospatuko da, Atxega jauregian.

Izena emateko, bi telefono zenbaki hauetako batera deitu behar duzu: 606 647 115 (Mikel) edo 600 648 889 (Marimar).

Izena emateko epea azaroaren 12an bukatuko da.

noaua

TOKIKOM

Argitaratzailea:
Noaua Kultur Elkartea
Bordaberrí 3, Eguzkitzaldea
20.170 Usurbil
943 360 321
elkartea@noaua.eus

Elkarteko lehendakaria:
Idoia Torregarai.
Aldizkari koordinatorra:
Imanol Ubeda.
Idazkaria:
Alaitz Aizpurua.

Erredakzio kontseilua:
Aritz Lasarte, Ixaso Orbeagozo,
Imanol Ubeda.
Diseinua: Goiena.
Publizitate arduraduna:
Beatriz Alda.

Tel.: 943-360 321
publizitatea@noaua.eus
Banatzaleak:
Iñaki Irazusta, Iban Maritxalar.
Lege Gordailua: SS-668-96.
ISSN: 1136-6818.

Tirada: 2.980 ale.
Inprimategia:
Antza inprimategia. Zirkuitu
ibilbidea, 2. 20160 Lasarte-Oria.
Harremanetarako:
erredakzioa@noaua.eus



Gipuzkoako Foru Aldundia



Usurbilgo Udala

IRITZIA



UGAITZ AGIRRE ZAPIRAIN

Zeruak eta lurrak (2)

Markesa eta bere segizio guztia bidean zen bitartean, herrian matxinada hastear zen. Susmopeko familien etxeetako ateak kolpatu zituen jendetza asaldatuak. Neurriak hartuko zituzten mehatxupean, seme eta alaba desagertuen kokapena eskatzen zien. Abertzalea edo gorria izatea latz ordain zitekeen, are gehiago herri txikian, bizilagunak norbera baino hobeto ezagutu ohi dira eta.

“Non dago Alaitz?”, hitzak trumilka ateratzen zitzaizkien. Troiako alaba gazteena zer esan ez zekiela geratu zen. Auskalo non zegoen ahizpa. “Badakigu zertan ibiltzen den zure ahizpa, bai, eta ez diguzu ziria sartuko!” Iskanbila tarteko hurbildu zen etxeko andrea atarira. “Aitarekin joana da larreetara. Lanak ez dauka bukaerarik mundu honetan, eta, ez markesak, ez Jaungoikoak ez duenez lanik egingo, guk egin behar, baita jai egunetan ere”. “Kontuz aho horrekin!”, ohartarazi zioten. “Kontuz zuek mutur bero horiek ez zaitzaten harrapa ateak!” Danba itxi zuen atea, bailara guztian entzuteko moduko danbatekoa.

Motor zaratak erantzun zion. Errio ertzeko errepedean ikuskatu zuten auto ilara. Han zertoren markesa eta bere segizioa sano eta salbu. Arrapaladan egin zuten Troiara gerturatutakoek Kale Nagusirako bidea abisua emateko etxafuegoa jaurti ondoren. Horrek baretu

zituen bildutakoen nerbioak. Nolabait. Jada jantziak ez zeuden goizean bezala, eta itxaronaldi luzeak aurpegiko margoa eta indarra lausotu zituen. Egunsentiarekin etxeratutako kuadrilla zirudien herri osoak. Halere, Oxtapeko bihurgunea hartzearekin bat, energia kutsakorra zabaldu zen. Oihu eta txistuak, gorazarreak, iji eta uju, bibaka guztiak. Banderatxoak astintzen zituzten eta malkoak xukatzen. Salbatzailea ikusi zutela zirudien. Beroagatik baten batzuk zorabiatu ere egin ziren, baina testuingurua tarteko, ez zegoen batere lekuz kanpo. Auto barruetatik, markesaren familiak agur egiten zien eskua astinduz. Izarrak ziren lurrean.

Autoak ez ziren hamar kilometro orduko baino azkarrago joango. Halere, gerturatutakoei azkarregia egin zitzaie, iheskorregia omen momentua. Eta behin pasata, etxera joan behar ko, zeren Patri aldean jotzen zebilen musika banda baino gehiago entzun ziren tripa zorriak. Hiru eta erdiak, eta aurreikuspenen arabera, meza nagusira iristeko moduan izan danbatekoa.

"OXTAPEKO BIHURGUNEA HARTZEAREKIN BAT, ENERGIA KUTSAKORRA ZABALDU ZEN"

go ziren markesa eta enparauak. Herri agintariak elizkizuna iluntzean egitea adostu zuten, ez baitzen egokia izango markesaren presentzia gabeko San Jose eguneko meza. Distantziatik zaintzen duen aita zen usurbildarrentzat, ongia eta gaizkia bereizten zituena, justua eta bihozbera. Aura bereziko gizona zen, eta auto alemaniarretik atera zenean, zeruko eguzkiari itzal egiten zion argia gainean, herritar guztiak belaunika arazi zituen.

“Zepoza ematen didan herria horrela ikusteak. Bat etxean sentitzen da”. Txalo erauntsiaren erdian hurbildu zitzaion alkateari. Bosteko eta muina. “Autoa matxuratu zaigu. Pena handiz geratu naiz meza nagusira ezin iritsita”, eskusatu zen markesa. “Ez kezkatu horregatik, iluntzeko zortzietara atzeratu dugu elizkizuna. Ezin genuke halako ospakizuna zugebe egin”. Bizkarreko bat estimua azaltzeko.

Eta atera ziren autoetatik segizioaren partaideak: premu gaztea, emaztea eta bi alabak. Maiordomoa, zerbitzariak eta apaiza beste auto batetik atera ziren. Hirugarren batean azaldu zen erdiko alabarekin erro-mantzeren bat zeukan sehaska oneko mutila, poltsaz gain, itxuraz ere erakargarria. Nor izango ote zen galdetzen zuten herritarrek, jakin-mina eta morboa dosi berean, eta bakoitzak bere fantasia egin zuen, zein baino zein arraroagoa.

"Goazen kalera", hurrena Zubietan

Asteartero, Usurbilgo herri eta auzoetan paseotxo osasuntsuak egiteko aukera dago. Urriaren 22koa Zubietan egingo da. 10:30ean batuko dira bertako frontoian. Amaieran, hamaiketako banatu ohi da.

Datorren astean, kantu-jira herri bat

Usurbilgo Euskal Kantu Taldeak hilerio antolaturiko kantu-jira, urriari dagokiona, hilaren 26an izango da. 12:00etan Mikel Laboa plazatik abiatuko da. Ez ahaztu kantu-liburuxka eramatea.

Errigoraren udazkeneko kanpaina hemen da

Abiatzear da “Agerreko uzta euskarari puzka” Errigoraren udazken parteko kanpaina.

Eskaerak, NOAUA edo Errigoraren web orrialdean

Urriaren 24tik azaroaren 14ra bideratu ahalko dira eskaerak errigora.eus bidez edota NOAUA! Kultur Elkartearen. Nafarroa hegoaldean eta erdialdean ekoiztitako tokiko produktuez osaturiko hiru kutxa izango dituzue aukeran. Bildutako laguntzaren laurdena euskalgintzara bideratuko da.

Informazio gehiago datorren aldizkarian edota errigora.eus helbidean jaso ahalko duzue.





Bizipoza Elkarteak zortzigarren jardunaldiak iragarri ditu azaroaren 16rako.

“Bizipozatik arrazakeria deseraikitzen” jardunaldia Usurbilen ospatuko da

Aurreko bi urteetan bezala, Usurbil hautatu du Bizipoza elkarteak bere aurtengo jardunaldirako. Azaroaren 16an ospatuko da eta egun osoko egitaraua iragarri dute.

Aurkezpen gutxi behar duen gizartegintza egitasmo honek izaera bereziko gaiak plaza-ratu eta euskaraz sentsibilizatzen dihardu. Horrez gain, errealitate horietan eragiten diharduten elkarteoi laguntza afektiboaz gain, eguneroko jardunerako beharrei erantzuteko baliabide funtzionalak lortzeko laguntza eskaintzen dute.

Bizipoza Elkarteak zortzigarren jardunaldiak iragarri ditu hurrengo hilabeterako. “Urtero antolatzen diren jardunaldiek helburu bikoitza dute”, sustatzaileen esanetan. Batek, “elkarte guztiak elkartu eta bakarrik ez daudela, elkarren babesa sentitzea” eta, bestalde, “elkarteen interese-koak diren gaiak landu, espe-

rientziak partekatu eta mahain-guruetan parte hartuz, tresna desberdinak eskuratzea”.

Zaintza sistema publiko komunitarioa izan zuten hizpide 2022an, Bizipoza Eskola aurkezteko baliatu zuten iazko hitzordua. Aurtengoak “Bizipozatik arrazakeria deseraikitzen” aldarripean egingo dituzte. Arrazakeriaz ulertzen duguna, elkarteen begirada edota “euskara eta kulturartekotasuna hezkuntza komunitatean”, hizpideon bueltan arituko dira azaroaren 16an, 9:30-13:30 artean Sutegin. Dagoeneko hitzordu honetarako izena eman dezakezue labur.eus/bizipoza8 helbidean izango duzuen formularioan. Informazio gehiago, bizipoza.eus atarian jaso ahalko duzue.



Urriaren 27ra arte Sutegin izango dira ikusgai. ARGAZKIA: IBAI MARITXALAR, INSTAGRAM

Ibai Maritxalarren pintura erakusketa

Etenik gabe erakusketa ezberdinen aretoa izango dugu asteotan Sutegi. Urriaren 27ra arte pintura erakusketa bat bisitatzeko aukera egongo da kultur-etxeko gunehorretan, Ibai Maritxalar sortzailearena. “Ibai Maritxalar Bilbo eta Londoneko Arte Ederretan ikasten ibili izan da. Bere bizia Euskal Herria eta Mexikoren artean partekatuz, olioarekin mar-

gotzen du, keinua, adierazpena eta koloreagatik indartsuak eta harrigarriak diren jendeak eta formak sortzen ditu”.

Ostegunetik igandera zabalik
Ordutegi honetan irekiko dute erakusketa: ostegun eta ostiralean 18:00-20:00 artean; larunbatetan, 11:00-14:00 eta 17:00-20:00 artean; igandetan 11:00-14:00 artean.

Torrealdai beka

Jakin Fundazioak eta Usurbilgo Udalak sustaturiko beka deialdi honen bigarren edizioarako proiektuak aurkezteko urriaren 21era arteko epea dute interesdunek.

14.000 euroko saria

“Euskal kultura azterketa gaur” horixe da gaia, “Joan Mari Torrealdai duela ia 50 urte hasitako liburugintza azterketa berrikustea eta azterketa eredua beste arloetara zabaltzea” helburu duena. Lanak banaka edo taldean aurkeztu ahalko dira. Azaroa amaieran ezagutaraziko duen lan ira-

bazlearen egileak 14.000 euro jasoko ditu. Gerora, 18 hilabeteko epea izango du proiektu horren emaitza antolatzaileei helarazteko. Proiektuaren originaltasuna, erakargarritasuna, ikerketak gizartean izan dezakeen eragina eta interes soziala, proiektuaren egingarritasuna, egokitasun maila edota genero-berdintasuna sustatzea hartuko dira kontuan.

Informazio gehiago

Torrealdai bekari buruzko xehetasun guztiak jakin.eus web orrialdean topatuko dituzue.

ARRANDEGIA
PELLO
LANEGUNETAN 9:00-13:30
ASTEARTE-ASTEAZKEN-OSTEGUNA
17:00-19:30
PUNTAPAX 7, 943 54 37 94

txirriStra
TABERNA
·PLATER KONBINATUAK
·BOKATAK ·PINTXOAK
Kontseju zaharra, 13 Tel 943 36 04 66

Iñaki Iturgintza
BEROKUNTZA · GASA · AIRE EGOKITUA ·
ZORU BERO-EMAILEA
ITURGINTZA · ENERGIA BERRIZTAGARRIAK
info@inakiturgintza.com · www.inakiturgintza.com
600 024 825



2025eko ordenantza fiskalak onartzeko urriaren 10ean egindako udalbatzaren ezohiko osoko bilkura.

%2,6ko igoera, salbuespen berriekin

2025eko zerga, tasa eta prezio publikoak hasieraz eta gehiengo osoz onartu zituen udalbatzak urriaren 10ean eginiko ezohiko osoko bilkuran. KPI-aren abuztuko %2,6ko igoera orokorra aplikatzea hobetsi dute, baina salbuespen berriekin.

Ezinbesteko tresnatzat definitu zituen udal gobernu taldeekeskartean duten proiektu politikoa garatzeko urriaren 10ean eginiko ezohiko osoko bilkuran; "Usurbil berdinzaleago, bizigarriagoa eta jasangarriagoa eraikitzen laguntzeko" hain zuzen. 2025eko zerga, tasa eta prezio publikoei buruz ari ziren. Aurreko osteguneko ezohiko saio hartan onartu zituzten hasieraz eta gehiengo osoz EHBilduren eta EAJ-ren aldeko botoekin. PSE abstenitu egin zen.

Aurreko urteen ildotik, abuztuko KPI-aren igoera aplikatzea onartu zuten, %2,6a, baina ohi den moduan, salbuespen hainbatekin. Salbuespen horietan bada berrikuntzarik, gainera. Berdintasuna, justizia soziala eta trantsizio ekosoziala lehenetsi nahi dituzte neurriekin.

Hondakinen tasa

Hondakinen tasari dagokionean, %15eko igoera aplikatzea proposatu zuten, inguruko udalerrietan planteatzen ari diren eta udal gobernu taldeetik azken osoko bilkuran nabarmendu zuten %30-50 arteko "igoera eskandaluzkotik" urrun, beraz. Alor honetan izaten diren praktika desegokiak are gehiago zamatuko ditu Udalak 2025etik aurrera, "sortzez besteko sistemaren

"BERDINTASUNA, JUSTIZIA SOZIALA ETA TRANTSIZIO EKOSOZIALA LEHENETSI NAHI DITUZTE"

bidez". Udaleko ingurumen sailak eta atez ateko bulegoak hondakinen sailkapen egoikiari buruz eginiko azterlanaren arabera, hainbat etxeetan "ez da errefus unitaterik zentatu" etxebizitza hutsik egon edo kubo grisa zintzilik ez uzteagatik. Kasuok praktika desegokitzat joko dira eta hondakinen tarifaren zati aldakorri 87 euroko igoera aplikatuko zaio urte amaierako fakturan.

"ETXE HUTSEI %150EKO IGOERA APLIKATUKO ZAIE ONDASUN HIGIEZINEN ZERGAN"

%150eko errekarua

Justizia sozialaren bidean, nabarmentzeko moduko neurri bat hartzea erabaki dute egungo arazo sozial larrienetakoa denarentzat. 2025etik aurrera, etxe hutsei %150eko errekarua aplikatuko zaie Ondasun Higiezinaren Zergan. %50ekoa zen orain arte. 205 etxe huts ditu egun udalerrri honek, neurri horrekin alokairura bideratzea sustatu nahi dutenak. Gipuzkoak duen legediak baimentzen du igoera hau indarrean jartzea. Izan ere, udal gobernu taldeetik iragan asteko osoko bilkuran gogorarazi zuten, tentsionatutako eremu izendatzeko prozedura abian du udalerrri honek. Testuinguru honetan, aipatu igoera ez da udal gobernu taldeetik sustatuko duten neurri bakarra izango. Gai honi buruzko diagnosi bat egin dute, laster herriari aurkeztu asmo diotena.

Kirolari Txartela

Bada bestelako berrikuntzarik ere, kirol arloan hain zuzen. Orain arte, alor honi lotutako hiru prezio publiko zeuden eta horietan igoerak iragarri dituzte: Kiroldegiko abonamendua (%4,5eko igoera, Burretaldea mailan adosturikoa), ikastaroetako prezioak eta kirol instalakuntzak erreterbatzeagatik ordaindu beharrekoa. Laugarren bat txertatuko dute 2025ean; Kirolari Txartela izenekoa, historikotzat jo zuten arazo konponbidean jartzera datorrena. Bere jabe egiten denak ez ditu eskuratuko abonatu batek dituen eskubide guztiak, "behar duen horretarako kirol instalakuntzak erabiltzeko aukera" baikizik. Alegia, ordutegi zehatz baten baitan kirol instalakuntza konkretu bat baliatzea ahalbidetuko du. Abonamendu prezioaren %60a aplikatuko zaio. Aurtengo ikasturtea abian denez, 2025eko irailean jarriko dute martxan. Datorren urteko uztailean 1etik 20ra eskatu ahaliko da.

Aldaketa gehiago ere badira. Esaterako, iaztik abiarazitako igoera progresiboari jarraiki, beste 15 euro garestituko da Udajolas, kuota horiekin zerbitzuaren erdia baino estaliko ez den arren. Horrez gain, Eraikuntza, Instalazio eta Obren Gaineko Zergan %5a aplikatuko da, iaz baino %20 gehiago (%40a) aplikatuko da ur arazketagatik. Azkenik, jardueraren edo instalazioaren funtzionamenduari lotutako tarifak berrikusi eta aldatu asmo dituela berri eman du Udalak, "eta hainbat kasutan, merkatu", udal-langileen lan orduak ordenantzetan jasotzearekin batera.



%150eko erreargua aplikatuko die Udalak etxebizitza hutsei.

Hobariak

Prezioen garestitze hauek herritar orori modu berean ez diela eragingo jabetuta, azken urteon ildo beretik, %50-90 arteko hobariak eskuratu ahaliko dira, bizikidetzaren unitateko kide kopuruaren eta diru-sarreraren arabera. Udaletik zehaztu dutenez, egun 180 dira hobarien onuradunak. 2025ean Eraikuntza, Instalazio eta Obren gaineko Zergari dagokionean, %95era arteko hobariak eskatu ahaliko dira, trantsizio ekosozialari begirako neurriak hartuz gero eta %50era artekoak, trakzio mekanikoko ibilgailuen gaineko zergan "ibilgailu hibrido edo erabat elektrikoengatik, matrikulatzen direnetik lau urtez".

EAJ alde

EAJ-k babestu egin zuen udal gobernu taldearen proposamena. Bidezkotzat jo zuen KPIaren igoera aplikatzea 2025eko zerga, tasa eta prezio publikoei, pozgarriz etxebizitza politikari lotutako neu-

ria, baita Kirolari Txartelarena ere. "Herritarrek asko eskertuko dute", adierazi zuen EAJ-ren bozeramaile Xabier Otxoak.

PSE, abstenitua

PSE-k abstentziora joko zuela iragarri zuen. Izan ere, "sistema bidezkoagoa eta progresiboagoa eratzen duten tasak eta zergak defendatzen ditu, gehien dutenek ekarpen handiagoa egin dezaten" eta modu horretan, "herritar guztiek kalitatezko zerbitzu publikoak izango dituztela ziurtatuz". Etxebizitza hutsen gaineko

%150eko erreargua ontzat jo arren, Etxebizitzaren Euskal Legean ezarritako metro karratuko 10 euroko kanona (okupatu gabeko urte bakoitzeko %10eko igoera izango lukeena) aplikatzearen alde agertu zen alderdi hau. Bestalde, gehiegizkotzat jo zuen gehiago kutsatzeagatik hondakinen tasan ordaindu beharreko kopuruaren igoera. Garestitze mailakatuagoaren alde agertu zen Petri Romero.

Zero defiziterantz

Adierazpenon aurrean, hobarien sistema zabala igoera

hauen abiapuntu izango direla erantzun zioten udal gobernu taldeak PSE-ren bozeramaileari. Helburua, zerbitzu eta eskaintza publiko osoan herritar guztien aukera berdintasuna bermatzen segitzea izango da, "errenta ez izatea oztopoa zerbitzu publikoek gozatzeke", EHBildutik gogorarazi zuten. Hondakinen gaiari dagokionean, gai honen inguruan sortutako eztabaida tranposotzat jo zuen EHBilduk. Izan ere, onartua den 7/2022 Legeak dio 2025erako hondakinen bilketak eragindako defizitak zero izan behar duela bai, baina defizit hori sortzez besteko tarifakzioaren arabera izan behar duela, udal gobernu taldeak gogorarazi zuten. %87ko gaikako bilketa duen udalerririk hori aspaldidanik. 2025ean, gainera, garestitu egingo du desgoki jokatzeko dutenen kasuan.

Honenbestez, "bere etxeko lanak ondo eginda iritsiko da egoera horretara", nahiz igoera hauekin egungo %25-30eko defizita zero izatea ez den lortuko. Norabide horretan, kokatu du udal gobernu taldeak hondakinen tasari 2025ean aplikatuko zaion %15eko igoera, "hondakinen bilketaren eta kudeaketaren arteko finantza oreka lortzeko ahaleginean", pausoz pauso, "tasa pixkanaka igoz eta gastuei eusteko ahalegina eginez". Halere, udal gobernu taldeak gogorarazi zuten, %10eko defizita izango luke herri honek, baldin eta eramandako hondakinen arabera tarifa ordainduko balitz.

"AZKEN URTEON ILDO BERETIK, %50-90 ARTEKO HOBARIAK ESKURATU AHALKO DIRA"

"IAZ ABIATUTAKO IGOERA PROGRESIBOARI JARRAIKI, 15 EURO GARESTITUKO DA UDAJOLAS"

ARANKA BERRIKUNTZAK
 · Fatxaden estaldurak · Estalkien berriztatzeak
 · Barruko berrikuntzak · Gremioen koordinaketa
 · Igeltseritza orokorra
722 297 867 USURBIL

Haginak ondo dabiltzanean, sabela poz!
USURBILGO HORTZ KLINIKA
 ANTONIO BERNAL RUIZ DE OÑA
 EKAITZ GARMENDIA MERINO RPS: 28/22
943 37 08 78 NAGUSIA 10, 1 C4 USURBIL

ZENDOIA ENEA taberna
 Kale Nagusia 35, Usurbil



Araitz Larreak 0-3 urte arteko umeei zuzendutako ikastaroa eskainiko du Zumarte Musika Eskolan.

"Musikara hurbiltzeko hastapen moduko ikastaro bat da gurea"

ARAITZ LARREA 'MUSIKA 0-3' IKASTAROKO IRAKASLEA

Araitzek lau urtez jarraian eskaini du ikastaroa. "Gero eta arrakasta handiagoa du", aitortu digunez. Hamabostean behin batzen dira Zumarten, eta saio bakoitzak ordubeteko iraupena du. Ume bakoitza heldu batekin bertaratzen da. Gehienez ere hamarreko taldeak osatzen ditu.

0-3 urtekoei zuzendua dagoen aldetik, izaera ludiko bat izango du zure ikastaroak, ezta?

Bai, erabat. Izena ematen dutenek musikarekin gozatzeko aukera izango dute hamabostean behin. Musikara hurbiltzeko hastapen moduko bat da. Taupada lantzen hasten gara baina batez ere gozatzeko eta musikaren aitzakian ondo pasatzeko elkartzen gara.

Instrumentuak gurasoek eraman behar dituzte ala Zumarte musika eskolak jartzen al ditu soinu tresnak?

Eskolan perkusio txikiak ditugu eta horiek erabiltzen ditugu musika tresna gisa.

Gurasoek ez dute ezer ekarri behar.

Nolakoa da zure ikastaroko eskola egun bat? Zein da zure ikastaroaren mekanika?

Taupaden bidez lantzen dugu dena. Hala barneratzen dugu musika. Nik abesti batzuk aukeratzen ditut baina ikastaroan aurrera egin ahala, gurasoek eta umeek proposatzen dituzte abestiak. Nik saioak prestatuta eramaten ditut, baina lotsa alde batera uzten hasten direnean, proposamen asko egiten dizkidate. Beraiek gustuko dituzten abestihoriek aprobetxatuz, lehenengo taupadak eta musikaren lehen irizpideak ulertzen saiatzen gara.

Errepertorioan hortaz, Pirritx eta Porrotx pailazoak izango dira jaun eta jabe?

'Ene Kantak'-eko kantekek ere arrakasta handia dute. Bestelako estilokoak ere lantzen ditugu. Batzuk etorri izan dira

"UMEAK IKASTARORA ETORTZEKO IRRIKITAN IZATEN DIRA. EGIA ESAN, OSO ONDO PASATZEN DUGU DENOK"

Berri Txarrak-en kantaren batekin, gurasoekin landu dutela esanez, eta hori gus-tura entzungo luketela esanez. Nahikoa zabala da erreper-torioa, baina batez ere umeen abestiak dira nagusi. *Sorgiña Piruliña* jarriz gero, denak hasten dira dantzan.

Zenbat laguneko taldeak izaten dira?

Taldeak ume kopuruaren arabera antolatzen ditugu. Ostiral arratsaldetan elkartzen gara, eta hamabostean behin. Zumarten, Musika Txokoa egiten den gela berdinean batzen gara. Ez dago altzaririk eta oso egokia da gure ikastaroa egiteko. Nahi duenak eserita, nahi duenak etzanda... Mugimendua izaten da nagusi gure saioetan.

Zure ikastaroaren ordutegia ez dago zehaztuta oraindik. Gurasoekin finkatuko duzu akaso?

Ume kopuruaren arabera finkatuko ditugu taldeak eta ordutegiak. Iaz adibidez, hiru talde osatu ziren. Normalean hamarreko taldeak izaten dira. Hortik aurrera, gaizki. Pentsa, hamar umerekin beste hamar heldu elkartzen direla.

Ikusi beharko dugu, izen-ematearen arabera erabakiko dugu zenbateko taldeak izango diren.

Hau laugarren urtea duzu. Zure ikastaroak arrakasta duen seinale.

Bai, gero eta ume gehiago etortzen dira. Arrakasta du, bai.

Zalantzan dagoen horri, zer esango zenioke?

Musikaren mundura hurbildu nahi duenak edota une atsegin bat igaro nahi duenak aukera polita duela. Hamabostean behin elkartzen gara, beraz, ez da batere pisutsua egiten. Umeak gainera, ikastarora etortzeko irrikitan izaten dira. Egia esan, oso ondo pasatzen dugu denok; umeek, gurasoek eta nik neuk.

Zumarte Musika Eskolako ikastaroetan izena emateko garaia

Datorren astelehenean zabalduko da epea eta zumarte.eus web orrialdean osatu behar da matrikula.

Gitarra +55 urte

- Irakaslea: Ixak Arruti.
- Maiztasuna: Astean ordu bat (taldean).
- Eguna: Asteartean, goizeko 10:00etan.
- Prezioa: Matrikula 108 euro + 24 euro / hilean.

Musika 0-3 urte

- Irakaslea: Araitx Larrea.
- Maiztasuna: Hamabostean behin ordu bat (taldean).
- Eguna: Ostiral arratsaldean.
- Prezioa: Matrikula 54 euro + 12 euro / hilean.

Ukelelea

- Irakaslea: Nuria Culla.
- Maiztasuna: Astean ordu bat (taldean).
- Eguna: Astelehenetan, arratsaldeko 18:30ean.
- Prezioa: Matrikula 108 euro + 24 euro / hilean.

Alboka

- Irakaslea: Teresa Jareño.
- Maiztasuna: Astean 30 minutu (bakarka).
- Eguna: Asteartean (ordua irakaslearekin dostua).
- Prezioa: Matrikula 148 euro + 31 euro / hilean.



Ikastaroak azaroan hasiko dira eta ekainera arte luzatuko dira. Izen-ematea ordea lehenago egin behar da, urriaren 21etik 27ra. ARGAZKIA: AKABA.NET/

Dultzaina

- Irakaslea: Mikel Ortiz.
- Maiztasuna: Astean 30 minutu (bakarka).
- Eguna: Ostegunetan (ordua irakaslearekin dostua).
- Prezioa: Matrikula 148 euro + 31 euro / hilean.

Matrikulaziorako epea:

- Urriaren 21etik 27ra, zumarte.eus helbidean.
- Oharra: Ikastaro guztiak azaroaren 4tik ekainaren 20ra izango dira. Ordaindu beharreko hileko kuota 8 izango dira, azarotik ekainera.



Beñat Alkortak Aizpurua okindegian lortu zuen urrezko bonboia. Maria Mateok Alkartasuna kooperatiban eta Nagore Unanuek Lizardin.

Urrezko bonboi guztiak banatu dira

Hurbilagoren inoizko kanpaina gozoenaren sari guztiak banatu dituzte dagoeneko. Gogoan izan, elkarte honen dendetan erosketak egitearen truke bonboi bat jaso zitezkeen dastatzeko opari gisa. Baina,

adi, urrezkoa egokituz gero, ez zen dastatu behar, saria zekarren bonboia baitzen; Hurbilagoren saltokietan xahutzeko 100 euroko saria hain zuzen. Bost ziren egokitu zitezkeen urrezko bonboiak. Egunotan

atera direla jakinarazi du Hurbilagok, banan-bana. Aurreko astean eman genuen lehen bisarrituen berri. Moises Andresi Santueneko Esnaola janari dendan egokitu zitzaion eta Juan Antonio Caballerori, Opil

Goxon. Beñat Alkortari aldiz, Aizpurua okindegian tokatu zitzaion, Maria Mateori Alkartasun eta Nagore Unanue Iruetari Lizardin. Azken hiru sarrituen argazkiak batu ditugu albiste honen bueltan.



"Kamera frigorifikoetan egiten dugu eta edukiontzi berezi batzuk baliatzen ditugu izotz sagardoa ekoizteko".

"Izotz sagardoa elikagai koipetsuekin edaten da: foie, txuleta, gazta..."

EGOITZ ZAPIAIN ZAPIAIN SAGARDOTEGIKO PRODUKZIO ARDURADUNA

Urriaren 24an, ikastaro bat eskainiko du Aginagako Eliza Zaharrean. Izotz sagardoaren inguruko azalpenak eskaintzeaz gain, edaria ekoizteko gakoak eskainiko ditu. Ikastaroaren azken txanpan, izotz sagardo ezberdinak dastatzeko aukera izango da.

"Izotz sagardoa zer da?" izeneko ikastaroa eta dastaketa gidatuko duzu urriaren 24an Aginagako Eliza Zaharrean. Sagardogintzan iaioak ez garenontzat, lehen galdera begibistakoa da: zer da izotz sagardoa?

Izotzezko sagardoa da bere garaian Kanadan sortu zen edari bat. Ustekabean sortu zen, aspaldian. Izozte handi baten ondorioz, urtea oso hotza izan zen. Udaberria iritsi zenean, sagarra oraindik sagastietan zegoen. Sagar haiek bildu eta edari bat egin zuten. Emaizta? Alkohol askoko edari bat. Hainbeste alkohol zuen, gozo geratu zela. Geroztik, sagardogile batzuk propio hasi ziren modu horretan ekoizten.

Teknika horrek bi aldaera ditu. Sagar izoztuarekin egiten da bat, zuku izoztuarekin bestea. Sagar izoztuarekin eginda naturalagoa ateratzen dela diote. Errendimendu gutxiago du baina bai ala bai latitude altuetan egin behar da. Hemen, Europan, Estoniatik gora egin daiteke. Eta Ipar Amerikan, Kanadan gehien bat.

Gure latitudean, teknika hori fortzatu egin behar dugu ha-labeharrez.

Europa iparraldean ere badute sagardo mota hau egiteko joera? Europan ere orain hasi dira. Euskal Herrian gu eta Oiarte ari gara izotz sagardoa ekoizten. Guk zuku izoztuarekin

egiten dugu. Kamera frigorifikoetan egiten dugu eta edukiontzi berezi batzuk baliatzen ditugu. Zukua deshidratatzen dugu eta hortik eratorritakoarekin osatzen dugu izotz sagardoa.

Noiz hasi zineten izotz sagardoa ekoizten?

"10'5 GRADUKO EDARIA DA, ARDO GOZO BATEN PAREKOA. 'OPORTO' BATEKIN PAREKATU DAITEKE"

Lehen saiakera 2013an egin genuen baina gaizki atera zen. 2014an ez zen errezil sagarririk izan. 2013ko akatsak zuzendu eta gero, 2015ko uztarekin asmatzea lortu genuen. Bi urtez behin ekoizten dugu. 2015 eta 2017 urteetako uztak daude orain merkatuan. 2019koa orain botilatuko dugu eta 2021ekoa depositoa daukagu.

Destilatu moduko bat da, hortaz? Patxaranaren parekoa edo?

Ez, ez. Ardo gozo baten tankerakoa da. Jendeak hobeto ulertu dezan, 'Oporto' baten parekoa da.

Zein janarirekin edan daiteke?

Ala postrerako edari bat al da?

Otordu koipetsuak eskatzen ditu: foie, txuleta, gazta... Alkohol eta azukre asko du. Ez da tortilla frantsesarekin edo arrozarekin jatekoa, nire ustez. Bere zaporea eta indarra nabarmentzeko janari koipetsua behar duzu.

Ze graduazioa du izotz sagardoak?

10'5 graduko edaria da, eta 120 gramo azukre ditu.

Ez da botilako sagardo naturalaren erritmoan edateko modukoa.

Edan, edan daiteke sagardo naturala edaten dugun moduan, baina berehala mozkortuko ginateteke, kar, kar, kar.

Guri ezezaguna zitzaigun edari hau. Merkatuan ari da bere bidea egiten?

Bai, batez ere esportazioan. Euskal Herrian, produktua zaintzen duten jatetxeetan aurki daiteke, edo 'delicatessen' moduko dendetan. Astigarragan hiruzpalau tabernetan topatuko duzu baina ez da poteatzeko edari bat. Gainera ez da merkea.

Zenbatean dago ba?

Prozesu osoan energia asko kontsumitzen da, ur asko galtzen da... Ipar Amerikan edo Europa iparraldean naturalki egiten dutena, guk dirua gas-

→ tatuz lortzen dugu. 2015eko uztako botila oraintxe 25 eurotan egongo da, eta 2019koa, 21 eurotan.

"Ikastaroa interesa duen guztiei zuzendua dago"

Ikastaro bat eta dastaketa bat eskainiko duzu Aginagan. Izena ematen duenak ze ikasiko du?

ekoizpen prozesua ezagutuko du, beraz, nola egiten den ikasiko du. Lehenbizi ulertu egin behar da nola egiten den. Eta gero gureak eta atzerriko lagunekin izotz sagardoak dastatuko ditugu. Botila batzuk bidaltzeko eskatu diegu kanpoko ekoizle batzuei eta gureak zein kanpokoak alderatuko ditugu.

Usurbilen etxeko sagardoa ekoizteko joera dago. Ikastaro hau haiei zuzendua dago akaso?

Interesa duen orori zuzendua dago. Kuriositatea duenari, edari mota hau gustuko duenari edota Sagardo Egunean gozatzen duenari. Azken fi-



"Urriaren 24ko ikastaroan atzerriko izotz sagardoak eta bertakoak dastatuko ditugu".

nean, sagardo mota bat da, baina berezia.

Ze sagar motarekin egiten da?

Errezil sagarrarekin egiten dugu %100ean. Azukre asko duen fruitua behar da.

Sagar ekoizleen lana ere garrantzitsua izango da.

Kristoren zorrea dugu bertako baserriarekin. Lan izugarria egiten dute eta eskerrak eman behar zaizkie. Elkarrizketa guztietan azpimarratzen dugu. Ze produktu on bat gabe, ezingo genuke edari on bat egin.

Sagarraren eta sagardo kulturaren inguruko jardunaldi batzuen baitan antolatu da zure ikastaroa. Sektoreko profesional bat zaren neurrian, nola ikusten dituzu halako ekimenak?

Funtsezkoak dira. Gu 2015etik ari gara Bizi-Goxo izotzezko

"ZORTE HANDIA DUGU BERTAKO BASERRITARREKIN. LAN IZUGARRIA EGITEN DUTE"

sagardoa egiten baina jendea orain hasi da ezagutzen. Sagardogintzan ere hamar mila gauza egiten dira baina askotan oharkabean pasatzen dira.

Kasu honetan, Jakoba Errekondok eta Asier Kortadik (Alkartasuna kooperatibako kudeatzaileak) egiten duten lana oso garrantzitsua da, nondik gatozen eta nora joan nahi dugun jakiteko.

"Izotz sagardoa zer da?" ikastaroa eta dastaketa Aginagan

- Urriak24, osteguna, 18:00etatik 19:30era.
- Aginagako Eliza Zaharrea.
- Bideratzailea: Egoitz Zapiain sagardogilea.
- Izen-ematea: 630 938 027 / sagardoa@ni.eus.
- Antolatzaileak: Sagardoaren Unibertsitatea; Alkartasuna Kooperatiba; Usurbil Sagarraren Bihotza, Sagardoaren Kultura.
- Laguntzaileak: Usurbilgo Udala; Aginagako Eliza Zaharra Elkargunea.

Sari ugari batu dituzte Euskal Herrian zein atzerrian

Nazioarteko txapelketa askotan saritua izan da zuen sagardoa. Alemanian, Ingalaterran, Amerikako Estatu Batuetan edota Norvegian. Euskal Herrian ere ez dira gutxi jaso dituzuenak: Gastronomiako Euskadi Saria, besteak beste. Kanpoko txapelketetan, epaimahai bat egoten da eta epaile horiek, puntuazio bat emateaz gain, balorazio tekniko bat egiten dute. Eta gu batez ere horregatik aurkezten gara lehiaketa horietara. Epaimahaikideen balorazio hori jasotzeko.

Zuen lana hobetzeko balio dute. Hori da. Adibidez, izotzezko sagardoaren jatorria Kanadan



Irailaren amaieran, Gipuzkoako Sagardo Txapelketako 3 sariak jaso berritan.

dago eta haiengatik ikasi behar duzu, bai ala bai. 2015ean, hango sagardotegi batzuk eskaini ziguten laguntzari esker asmatu genuen izotz sagardoa egiten.

Oraintxu Gipuzkoako Sagardo Txapelketako hiru sariak banatu dira (sagardo naturala, berezia eta aparduna) eta hiruretan nagusitu da zuen sagardoa.

Iaz sagar oso ona sartu zen, bertakoa, eta horri esker sagardo onak suertatu ziren.

Eta maiatzean, Chicagoko mundu mailako txapelketa batean, munduko sagardogilerik onenaren saria eman ziguten. Berri hori sare sozialetan eta mugitu genuen, baina lagun amerikarrek esaten diguten moduan, "guk sari hori irabazi izan bagenu, CNNn aterako ginateke".

Esportaziorako adibidez, oso balekoak izango dira halako errekonozimenduak, ezta? Bai, zalantzarik gabe. Lagungarriak dira.

Errioa herriratu dute Aginagako festen amaieran

Haurrak eta errioa izan dira Aginagako festen bigarren eta azken asteburuko protagonista nagusiak.

Etorkizunari begira jarri dira Aginagako jaiak San Praixkuen azken asteburuan. Izan ere, etorkizuneko belaunaldia izan du protagonistetako bat festen amaierak, Umeen Egunarekin. Talde lanean, elkar laguntzen jarritako jolasetan igaro zuten urriaren 11, lagunartean, Aginaga bizigarriagoaren aldeko dinamikan murgilduak. Bazkariak, buruhandiek, txokolate janak edota puzgarriek osatu zuten eguneko eskaintza. Biharamunean, aldiz, etorkizunera begirako beste erronka bati heldu zioten Aginagan.

Iazko Errioaren Egun arrakastatsua bigarren edizioa ospatu zuten. Errioa herriratu zuten beste behin Mapil aldetik. Piraguetan, arraunean, edota alan Txokoalderantz nahiz Sarikolarantz ibiltzeko aukera eskaini zuten. Aurrera begira, eremu honekin naturalago harremantzea sustatu nahi dute. Egun honi, nortasun propioa eman. Momentuz, jaietan harrera ezinhobea izan du, bestela, bistaratu ezin diren paisaietan barrena bidaiatzeko aukera paregabea eskainitako egunak.



Errioaren Egunaz gozatzeko aukera izan zuten urriaren 12an.



Umeen Eguna esnatzeko dantza giro bizia.



Auzolanean, jolasean ere elkar laguntzen aritu ziren Umeen Egunean.



Buruhandiak txikienen lagun.



Askari gozoena, txokolatea dastatzeko irrikitan.



Umeen Eguna jira-biran amaitu zuenik izan zen.



Emakumezkoen eta gizonezkoen trainerila txapelketetan, Orio nagusi.



Arraunlarien, alen eta piraguen topagunea izan zen Oria Errioren Egunean.



Lehia bizia, Errioren Eguneko trainerila txapelketan.



Paisaia ezin ederragoez gozatzeko aukera eskaini zuten ala gainean.



Bestela ikusi ezin diren paisaia zoragarrietatik igarotzeko aukera izan zen.



Errio herriratu eta herria erriortatu zen urriaren 12an.



Belaunaldi gazteenetik helduenera barneratu ziren errioren iragan larunbatean.



Emakumezkoen trainerilla txapelketa irabazi ondoren, Aginagako bandera Oriok jaso zuen unea.



Jokoan izan zuten bandera.



Iñaki Errasti, proba gidatzen.

Oriorentzat Aginagako bi banderak

Oria biziberritu zuten urriaren 12an Aginagan. Lehenbizi, alan edota piraguetan ibiltzeko aukera izan zen jaien amaierako Errioren Egunean. Emakumezkoen eta gizonezkoen arteko trainerilla txapelketek borobildu zuten goiza. Lehia ederraren lekuko izan ziren Mapil ingurura joandakoek.

Erria herriratu zuten urriaren 12an eta herriak ere modu berean erantzun zuen, Orian barneratu zen iragan larunbatean. "Errioz gozatu" izeneko ekimenaren bidez, ibai ertzetik nahiz barrutik dugun altxorraz jabetzeko topagune ederra izan zen Mapil ingurua. Uretan igaro ostean, trainerilla txapelketak borobildu zuen goizpasa. Giro paregabea bizi izan zen estropada hauetan. Errio ertzak arraunlarien animatzeko eremu bizi askoak izan ziren estropadak jokaturiko eremuko ibilbidean zehar.

Azkenekoz, duela bost urte ospatu zen Aginagako trainerilla txapelketa. Hain justu, aurtengo edizioa egindako egun berean, 2019ko urriaren 12an. Bost urte geroago, azken edizioko txapeldunak nagusitu dira. Bai emakumezkoen

trainerilla txapelketan baita gizonezkoenean ere Oriok etxeratu zituen alde batean ikurriña eta bestean Aginagako bandera zituen oihal handiak.

Bi segunduko tartean

Lehia estua eta ikusgarria izan zen, bai emakumezkoen zein gizonezkoen trainerilla txapelketetan. Aginagako jaien azken txanpa honetan jokaturiko emakumezkoen arteko proban sei ontzi lehiatu ziren. Binaka parte hartu zuten bosgarren edizio honetan; talde bat errioren gora Txokoalderantz abiatu zen, bestea Mapilerantz. Hala, hiru txandatan neurtu ziren. Emakumezkoetan, lehen txandan irten ziren Oriok eta San Juan, Tolosaldea eta Ondarroa bigarren eta Arraun Lagunak eta Hondarribia hirugarren.

Emaitzak nabarmentzeko modukoak izan ziren. Izan ere, bi segunduko tartean sailkatu ziren seitik hiru ontzi; Oriok, Hondarribia eta Arraun Lagunak. Tarte oso txikia izan arren, Oriok nagusitu zen azkenik eta Aginagak mugakide duen udalerrriak etxeratu zuen trainerilla txapelketako ikurriña.

Bietan nagusi

Gizonezkoen hamaikagarren txapelketan ere sei izan ziren

"ERRIO ERTZETIK TXALO ETA ANIMO MEZUAK ETENGABEKOAK IZAN ZIREN DENENTZAT"

hitzorduan parte hartu zuten ontziak. Binaka lehiatu ziren hiru txandatan: lehenbizi Oriok eta Ondarroa, Kaiku eta Getaria segidan, eta, amaitzeko, San Juan eta Hondarribia. Emakumezkoen arteko lehiaketan gertatu bezala, kasu honetan ere Oriok nagusitu zen.

Bi probetan haizea izan zuten arraunlariak bidelagun hainbat uneetan. Ikuskizun paregabea eskaini zuten. Errio ertzetik txalo eta animo mezuak etengabeak izan ziren denentzat.

Aginagako trainerilla txapelketa

Emakumezkoen V. ikurriña

- 1-Oriok: 10:05.87
- 2-Hondarribia: 10:07.32
- 3-Arraun Lagunak: 10:07.50
- 4-Tolosaldea: 10:23.81
- 5-San Juan: 10:29.50
- 6-Ondarroa: 10:38.75

Gizonezkoen XI. ikurriña

- 1-Oriok: 8:36.66
- 2-Ondarroa: 8:43.32
- 3-Getaria: 8:47.96
- 4-San Juan: 8:56.10
- 5-Hondarribia: 8:57.86
- 6-Kaiku: 9:18.24



Buruntzaldeko Ibilbideen 16. Eguna aurkeztu zuten iragan ostiralean, Dema plazan.

Eskualdeko bideetan barneratzeko gonbita

Buruntzaldeko Ibilbideen 16. Eguna antolatu dute iganderako, urriaren 20rako. Tipi-tapa, eskualdeko bideetan barneratu eta hurbilen ditugun txoko ederrez gozatzeko aukera paregabea izango da, jarduera fisikoa egitearekin batera.

"Lehiatzeko ez den eta edozein publiko motarentzat egokia den jarduera fisikoa egiteko eta Buruntzaldea eskualdeko eta bere landa ingurune naturala ezagutzeko aukera izango dugu", antolatzaileen esanetan. Oraingoan, ez dute ur botilarik zerbitzatuko. Honenbestez, nork berea eraman beharko du eta bidean izango dituen iturrietan bete ahalko du urez. Bada bestelako nobedaderik ere. Navi Ruta izeneko aplikazioa berritu dute eta berriz instalatu beharko da.

Ohi bezala, bidean kontrol guneak egongo dira, anoa eta itzulerarako autobus zerbitzua Aginaga eta Urnieta artean, 12:00-14:00 artean. Zerbitzu horren ibilbidea eta ordutegia, geltokietan izango duzue ikusgai. Antolatzaileek ekimen hau bideratzen lagundu dutenei

eskerrak helarazi zizkieten iragan ostiralean Potxoenean eginiko aurkezpen ekitaldian. Xehetasun gehiago dituzue segidan:

Buruntzaldeko Ibilbideen 16. Eguna

Hitzordua: urriak 20, 8:00-14:00.

Kontrolak, anoa eta argibideak: Andoaingo eta Urnieta herriko plazetan, Lasarte-Oriako Elizatze plazan, Santueneko bidegurutzan eta Aginagako Mapil baserri ondoan.

Bideetako seinaleztapen koloreak: Andoain urdina, Lasarte-Oria urre zaharra, Urnieta berdea eta Usurbil laranja. Udalerrri guztietan informazio panelak.

Ibilbideak:

Andoain-Lasarte-Oria (urdina eta urre zaharra): 7,9 kilometro Buruntza menditik. Oinez egin daiteke, beharrezkoa mendiko oinetakoak erabiltzea.

Andoain-Urnieta (urdina eta berdea): 4,8 kilometro. Oinez edo bizikletaz egin daiteke, beharrezkoa kirola egiteko oinetakoak erabiltzea.

Andoain-Usurbil (urdina eta laranja): 14,9 kilometro. Antzatzatik barrena. Soilik oinez

"ESKUALDEA ETA BERE LANDA INGURUNE NATURALA EZAGUTZEKO AUKERA DUGU"

egin daiteke eta beharrezkoa da mendiko oinetakoak erabiltzea.

Lasarte-Oria-Urnieta (urre zaharra eta berdea): 3,9 kilometro. Oinez edo bizikletaz egin daiteke, eta beharrezkoa da kirola egiteko oinetakoak erabiltzea.

Lasarte-Oria-Usurbil-Aginaga (urre zaharra eta laranja): 9 kilometro. Oinez edo bizikletaz egin daiteke eta beharrezkoa da kirola egiteko oinetakoak erabiltzea.

Lagungarria: Navi Ruta izeneko aplikazioa telefono mugikorrentzat; honen bidez Buruntzaldeko ibilbideetako edozein egiterakoan, sistemak modu jarraituan emango duen informazioa (kokapena, jarraitu beharreko norabidea, interes-guneak...) jaso ahal izango da. Aplikazioa deskargatzeko eta ibilbide bakoitza aktibatzeko udalerrri bakoitzean jarriak dauden paneletan jarritako QR kodeak eskaneatu beharko dira edota herri bakoitzari dagokion klabea ipini: Andoain 125, Lasarte 123, Usurbil 126, Urnieta 124. Egin zaizkion berrikuntzak tarteko, berriz instalatu beharko da.

Itzulerarako autobus zerbitzua:

-Aginaga, Ezpaldiko gasolindegia: 12:00, 13:00, 14:00.

-Usurbil, San Inazioko biribilgunea: 12:07, 13:07, 14:07.

-Lasarte-Oria, Dorretzeko biribilgunea: 12:15, 13:15, 14:15.

-Andoain, Goikoplaza atzealdea: 12:30, 13:30, 14:30.

-Urnieta, Kiosko geltokia: 12:40, 13:40, 14:40.

Antolatzaileak: Buruntzaldeko udaletako kirol zerbitzuak.

Laguntzaileak: Euskalduna Mendigoizale Elkarte (Andoain), Ostadar S.K.T. mendizaleen eta Ipar Martxa sailak (Lasarte-Oria), Super Amara.

Informazio gehiago kiroldegietan:

943 30 01 47 (Andoain), 943 37 61 82 (Lasarte-Oria), 943 00 83 28 (Urnieta), 943 37 24 98 (Usurbil).



'Sorgina Txirulina' ipuin kontalaria urriaren 22an arituko da Aginagako Eliza Zaharrean, arratsaldeko 17:30ean.

"Euskaraz ez dakiten gurasoak euskarara hurbildu nahi ditut"

ERICA LIQUETE 'SORGINA TXIRULINA' IPUIN KONTALARIA

Sorgina Txirulinaren bisita izango da datorren asteartean Aginagako Eliza Zaharrean. Ipuin kontaketa eta zeharkako txirularen doinuak nahastuko ditu pertsonaiak Ericaren pertsonaiak.

"Musikaren bidaia" ipuin kontaketa saioa eskainiko duzu Aginagan urriaren 22an. Zer nolako bidaia espero dezakegu? Zer kontatuko duzu?

Ipuin kontaketa bat izango da. Kontaketa honetan hainbat ipuin eta istorio berezi kontatuko ditut, beti ere, musika protagonista bilakatuta. Istorio bakoitzean, bidaia musikala egite horretan, musika estilo bat aurkeztuko dut: jazz, reggae... Familiek eta umeek beste musika estilo batzuk ezagutzeko aukera izango dute. Hala, gaur egun horren zabalduta dagoen reggetoiaz haratago beste musika mota bat ere badela erakutsi nahi dut.

Zeuk asmatutako istorioz elikatuko duzu ikuskizuna edo istorio tradizioaletan oinarritzen da?

Kontaketa honetako istorioak nik asmatutakoak dira. Beste ipuin kontaketa batzuetan erabili izan ditut ipuin tradizionalak edo beste autore batzuen istorioak, baina "Musikaren bidaia" neure ipuinez bakarrik elikatu dut.

Zeharkako txirula jotzen duzu ikuskizunean, beraz, zertzat duzu zeure burua gehiago, muskaritzat hala ipuin kontalaritzat?

Ipuin kontalaria naiz ni, du-darik gabe. Kontaketa guztietan beti sartzen dut musika zeharkako txirularekin edo haur txikiekin abestien bitartez. Hala

ere, nire lana ipuin kontaketa da, batez ere.

Noiztik jotzen duzu txirula? Instrumentu gehiago jotzen dituzu? Zein da zure musika ibilbidea?

10 urterekin hasi nintzen txirula jotzen. Beti egon izan da nire ondoan eta ipuinak kontatzen hasi nintzenean eta

"IPUIN KONTALARIOK BAKARRIK EGITEN DUGU LAN; NIK, ORDEA, TXIRULAK LAGUNDUTA"

pertsonaia sortzen, oso modu naturalean etorri zen txirula ere proiektuaren barnean sartzeko ideia hori. Gainera, ipuin kontalariorik bakarrik egiten dugu lan normalean, eta bakarrik joaten gara areto, eskola edo dena delako lekuetara ipuin kontaketa egitera. Ni, behintzat kasu honetan, txirulak lagunduta ibiltzen naiz.

"Musikaren bidaia" da zeure lehen ipuin kontaketa saioa. Noiztik ari zara plazaz plaza?

Ipuingintzan aspaldi hasi nintzen; kontatzen baino gehiago, idazten. Idazmenak eraman nau ni ipuinakontatzera. Ipuin horiek ere kontatzeko aukera bazegoela konturatu nintzen. Ipuin pertsonalizatuak egiten hasi nintzen ekitaldietarako eta abar. Proiektu honen hasiera ezkontza batean izan zen. Ezkongaiak umeak zituzten eta haien zati ipuina idatzi eta kontatu egin nuen. Horren ondotik, klaseak hartzen hasi nintzen ipuinakontatzeko eta antzerkian ere sartzeari ekin nion. 2018an sortu nuen Sorgina Txirulina pertsonaia eta ipuin kontaketekin hasi nintzen. Aginagan egingo dudana ipuin kontaketa izango da, baina hastapenetatik beste ekimen batekin uztartuta egon izan naiz: euskaraz ez dakiten gurasoak euskarara hurbiltzea. Neure webgunean material asko daukat halako gurasoentzat. Begirada bat botatzera gonbidatzen zaituztet.

Txirulina zergatik da sorgina eta ez beste zerbait?

Txiki-txikitatik gustatu izan zaizkit sorginak. Helduagotan sorginen istorioen gainean hausnartzen aritu naiz eta ikeritzen. Helduentzat istorioak ere egiten ditut nire izenarekin. Sorginen istorioak ere badituz hor figura horren gainean hausnartzeko. Hala ere, Sorgina Txirulina modu goxoan aurkezten dut txikiak kontaketa hasieran eta gainera, janzkera ere ez da beltza eta horrek atsegin egiten du.



Sagar erakusketa iraunkorra, Alkartasuna kooperatiban eta Sutegin ikusgai.

Bertso-ibilaldia eta hainbat tailer, Sagar eta Sagardo Kulturaren baitan

Asteburu honetan bitan izango dugu gure artean Maialen Lujanbio; Santuenero bertso-afarian abestuko du larunbatean eta, biharamunean, Aginagako bertso-ibilaldian hartuko du parte.

Izan ere, bertso ibilaldia iragarri dute hilaren 20rako sagastietan barrena, Lujanbio-rekin berarekin eta Andoni Egaña bertsolariekin eta Jakobak Errekondorekin. Errekondok azalpenak emango ditu, Lujanbio eta Egaña bertsoetan ariko dira.

Aginagako frontoitik irtengo dira
Goizeko 10:00etan abiatuko dira Aginagako frontoitik.

Sagar eta Sagardo Kultura

Irailean eta urrian zehar

- Sagar erakusketa iraunkorra Alkartasuna kooperatiba eta Sutegin erakuslehoan.

Urriak 17, osteguna

- 18:30 "Sagar dultzea egiteko tailerra" Aitzaga elkartearen.

- Bideratzaileak: Mila Pagola eta Marije Goldarazena.

Urriak 20, igandea

- 10:00-13:00 Aginagako frontoitik abiatuta, bertso ibilaldia sagastietan barrena, Maialen Lujanbio eta Andoni Egaña bertsolariekin eta Jakobak Errekondoren azalpenekin.

Urriak 24, osteguna

- 18:00-19:30 "Izotz sagardoa zer da?" ikastaroa eta dastaketa Aginagako Eliza Zaharrean.
- Bideratzailea: Egoitz Zapiain sagardogilea.

Izen-ematea:

- alkartasuna@usurbil.com
- 943 361 114.

Antolatzaileak:

Alkartasuna kooperatiba, Sagardoaren Unibertsitatea.

Datorren astean, "Eukalyptus" antzezlanaren Sutegin

Euskarazko kulturagintza sustatzeko Udaltzaren abiarazitako "Geuretik Sortuak" egitasmoaren baitan ondutakoa da "Eukalyptus" antzezlanaren. Urriaren 25ean 19:00etan Sutegin auditorioan izango dugu ikusgai, Udaltzaren eta Udaltzaren eskutik.



Urriaren 25ean, 19:00etan Sutegin.

"Hau ez da baso bat"

Matxalen de Pedrok eta Jon Ander Urrestik zuzendutako sorkuntza lan honetan Jon Ander Urrestiketa Beñat Urrutiak parte hartzen dute. "Hau ez da baso bat. Hamen lurra karratua da. Hamen ilarak osatzen doguz. Hamen gatxa da gauzak sustraitik moztea. Hamen, eta hor, eta han. Hau monolaborantza da, gure bizi-eredua, paisaia islatua. Eukalyptus esatea etekin esatea da. Eukalyptus esatea erre-

kin esatea da. Eukalyptus esatea berrekin esatea da. Eukalyptus esatea gutaz aritzea da. Eroan nazazu basora, eta esango deutsut norena dan, eta zer haziko dan gu falta garenean. Eta zu, zerk sutzen zaitu?"

Sarrerak salgai

Antzezlanaren ikusteko sarrerak 3 eurotan eskuratu ahalko dituzue usurbilkultura.eus plataforman.

Bertso-afaria Santueneroan

Festen ostean, Santueneroan izango da ospakizun gehiago ere udazken honetan. Izan ere, Santuenero Kultur Elkartek bertso afaria antolatu du urriaren 19an iluntzeko 20:30etan Ibai-Ondo elkartearen. Maialen Lujanbio eta Uxue Fernandez zein Unai Muñoa herrikideek parte hartuko dute hitzorduan. Onintza Gartzia ariko da gai-jartzaile lanetan.

Txartelak Santuenero Gure Elkartearen salgai

Afariko menua honako hau izango da: txistorra, bakailoa saltsa, saiheskia, gazta, irasagarra eta intxaurrak, kafea eta kopa. Bertso-afaritarako txartelak salgai dituzte jada 30 eurotan, Santuenero Gure Elkartearen jubilatutako elkartearen tabernan edo 617 701 173 telefono zenbakian.

Eskubaloi Eskolan martxan da

Abiatu berri den 2024-25 denboraldiaren baitan, Eskubaloi Eskola antolatu dute 2011-2016 urte artean jaiotakoentzat. Orain da izena emateko garaia interesa dutenentzat. Horretara animatzen ari da egunotan Usurbil K.E.. Segidan duzue, deialdi honen harira argitaratu duen mezua. Formulario hau bete behar da izen emate hori bideratzeko: <https://forms.gle/8iRDusfkppRgBkDJ9>

Lehen entrenamendua, urriaren 27an

Eskubaloi Eskolaren lehen entrenamendu saioa urriaren 27rako iragarri dute. Hilean behin egingo dira aurrerantzean. Parte hartzeko ezinbestekoa izango da Eskola Kirolean izena emanda egon eta Oiarde kiroldegiko bazkide izatea.



Duela bi urte hasi zen Aritz Branton bizileku duen Usurbilen Booktegi jaialdia antolatzen.

"Booktegi jaialdia euskal kulturaren festa bat da"

ARITZ BRANTON BOOKTEGIKO ARDURADUNA

Hirugarrenez Booktegi jaialdia antolatzen ari da urriaren 26rako duela hiru urtetik bizileku duen Usurbilen. Hari buruzko xehetasunak eskaini dizkigu Aritz Brantonek lerrootan.

Hirugarren ediziora helduta, Booktegi jaialdia finkatzen doan hitzordua da?

Goizeko Elkarriz Irakurriz solasaldiak eta ipuin bildumak baietz uste dut. Laugarren urtea da egiten duguna, hirugarren aldia Usurbilen. Lagun askok esan digute ekin-tza horrek funtsa duela eta ni ere horrekin ados nago. Arratsaldeko eskaintza aldakorragoa da, baina aurtengo eskaintza ere oso polita da, publiko guztientzat gainera. Euskal kulturaren festa bat da, lagunartekoa. Ondo pasa nahi baduzue, etor zaitezte!

Herritarren parte hartzea aipatzekoa da baita antolakuntzan ere.

Hiru erakunde aipatu nahi nituzke. NOAUA! K.E. eta Sutegi udal liburutegia eta bi erakunde hauen lana eta bul-

tzada, poesia itzulerari dago-kionean. Hor parte hartzaile gehienak usurbildarrak izaten dira. Udarregi ikastola ere aipatu nahi dut. Aurten, arratsaldean, poesia dramatizatua izango dugu Sutegin.

Poesia itzuleran, aurten, bada aldaketarik ezta?

Aurreko bi urteetan, besteek hautatu zituzten poemak irakurtzea zen helburua. Aurten, aldiz, erabaki dugu nahi duenak nork berea hautatu eta

"AURTENGO ESKAINTZA ERE OSO POLITA DA, PUBLIKO GUZTIENTZAT GAINERA"

jendaurrean irakurtzea. Askotan pentsatzen da poesia irakurtzea ekintza elitista dela. Gure ikuspuntua kontrakoa da, poesia aitzakia da jendea elkartu eta gauzak partekatzeko.

Hori izan zen Booktegi egitasmoa jaialdi bilakatu zuena?

Bai. Duela bi urte, bosgarren urteurrena izan zen eta ospatu nahi genuen. Udalak eskuzabalik hartu zuen proposamena. Jendea etorri eta

"AURTEN ERABAKI DUGU NAHI DUENAK NORK BERE POEMA HAUTATU ETA IRAKURTZEA"

gozatu zuela ikusita, antolatzen jarraitzea erabaki dugu.

Zerri erantzun nahi izan dio sorreratik Booktegiak?

Bi ardatz ditu Booktegiak: literatura eskuragarri egotea guztiontzat eta doan. Bestalde, idazle askorentzat ez dago argitaratzeko aukerarik kostuengatik eta liburu zahar asko apaletan geratzen dira eta batzuetan eskuratzea ere zaila da irakurleontzat. Horiek irakurgarri jartzea da Booktegiaren lanetako bat.

Erakusleiho horretan agertzeko, zeintzuk dira irizpideak?

Euskara txukuna izatea, ondo idatzita izatea edota balizko irakurle batzuk irudikatzea eta arrazakeria eta matxismo eta bestelako gauza onartezinik ez izatea. Booktegi sortu ostetik plazaratu ditugu 300 liburu baino gehiago eta ezezkoa hamar bat aldiz eman-goen genuen soilik.

Balizko irakurle horren profilik irudikatzen joan zarete?

Hilero 4.000 pertsona inguru (ez bisitak) hurbiltzen dira Booktegiara. Zeintzuk diren? Hori ezin dugu jakin. Imajinatzen dugu euskaldunak direla, gehienak emakumezkoak kultur ekintza gehiengat hurbildutako gehienak hala direlako.

Zer nolakoa da zuen urteko dinamika?

Duela gutxira arte, astero liburu bat argitaratzen genuen. Lasaitu egin gara pixka bat, liburu funtsa badugu eta orain batez ere jasotzen duguna argitaratzen dugu. Horrekin batera, Elkarriz Irakurriz ekin-tzarako ipuinak eskatzen ditugu. Horri buruzko solasaldiak izango ditugu hilaren 26an. Solasaldien inguruan bideo asko ere egin ditugu. Saio berri bat ere prestatzen ari gara, "Literatura urratsez urrats" izenekoa, bidaiak eta euskal literatura klasikoa uz-tartuko dituen.

Booktegi.eus-en sartuta, euskal sortzaile asko ageri dira. Nola-koa da hartuemanana?

Booktegiarekin oso eskuzabal ibili dira ehunka sortzaile, oso pozgarria da. Hastapenetan, Booktegik zerbait proposatzen bazion sortzaile horrek ez zuen Booktegi ezagutuko eta beharbada ezetz esango luke horregatik. Gaur egun, aldiz, iruditzen zait, sortzaile gehienek ezagutuko dutela edo behintzat entzunda izango dutela eta, orduan, baiezkoa jasotzea errazagoa da egun.

Nola sustatzen duzue irakurzaletasuna?

Hori da gure helburu nagusia. Ez soilik liburuekin, audio eta bideoekin ere saiatzen gara hori egiten. Guztiok istorioak partekatzen ditugu etengabe. Ondo pasatzeko, gure burua garatzeko modu bat da.

Dena oso azkar irentsi eta ahazten dugun testuinguruan nola kokatzen da zuena bezalako egitasmo bat?

Guztiok hori pentsatzen dugu, baina telesail luzeak gehienok ikusten ditugu eta plazer handiz. Bestalde, poemak nahiko laburrak dira, beraz, hau izan liteke poesiaren garaia.

Balizko irakurleen artean bada aipatzeko moduko eraldakaterik?

Euskal literaturan, 40 urte baino gutxiago dituzten idazleen erdia baino gehiago emakumezkoak dira. Beraz, iruditzen zait euskal literatura jasotzen ari dela bultzada oso handi bat emakume horien aldetik. Askatasun oso zabalagoa dago gaiak jorrazterakoan.

Noiz hasi zinen literaturarekin harremanetan?

Gure amonak literatura ikasi zuen duela mende bat Birminghameko unibertsitatean. Aitzindaria izan zen. Duela mende bat unibertsitatean ikastea ez zen ohikoa emakume batentzat. Beraz, familiarrengandik datorkit, ez dut



lazko Booktegi jaialdiko "Elkarri Irakurritz" ekitaldiko une bat.

meriturik. Txikitatik liburuak oso estimatuak ziren, liburuetan istorio piloa zegoela banekien. Halakoetan, gainera, gure aldetik zerbait ematen dugu, irudimena eta hori partekatzea. Liburu elektronikoaren erabilera ezak eta liburu asko argitaratu gabe edo behin argitaratu eta hor geratzen zirela ikusita, gabezia horiek uztartzeko aukera ikusi nuen Booktegin. Haien gordelekua da.

Nola bizi duzu euskara, egun?

Duela hogeita urte euskaldun bat ezagutu, euskal gramatikarekin liluratua geratu eta jakin nuen ikasi behar nuela. Euskaltegi, barnetegi eta lagunartean ikasi dut, batez ere Donostian. Duela hiru urte hona etorri nintzen bizitzera eta une horretan beste ikasketak prozesu bat abiatu zen; Usurbilgo euskara ulertzea.

"ISTORIOAK PARTEKATZEN DITUGU ETENGABE. ONDO PASATZEKO, GARATZEKO MODU BAT DA"

Gehiago eta hobeto ulertzen dut orain. Jasotako laguntzarekin plazer hutsa da euskara ikastea.

Nola sentitu zara harrera herri izateko lanean ari den Usurbilen?

Nire esperientziatik pribilegio hutsa izan da. Hona etorri baino lehen, lagunak bantuen Usurbilen. Beraz, oso babestua, ongi etorria sentitu naiz hasieratik. Badakit "HarEman" izeneko egitasmoa egon dela martxan. Zoragarria iruditzen zait.

Nola da zuretzat duela hiru urtetik bizileku duzun herria erakustea, 650 Usurbil Bizi egitasmo gida gisa?

Oso pozik bizitzen ari naiz. Niretzat oso aukera polita da herria eta herritar gehiago ezagutzeko. Ardura sentitzen dut noski.

"TXIKITATIK LIBURUAK OSO ESTIMATUAK ZIREN, ISTORIO PILOA ZEGOELA BANEKIEN"

Egitaraua

Urriak 26, larunbata Zumarten:

- 10:30 Elkarririk irakurritz (mailegua*): Madidi Ane Txoperena, Goizalde Landabaso, Ainhoa Urien, Maitane Perez.
- 11:30 Poesia itzulerara. "Euskal poema bat aukeratu eta beste batek aukeratutakoa -edo zuk hautatutakoa- irakurriaz osatuko dugu itzulera. Eman izena liburutegian eta zure poema biblioteka@usurbil.eus helbidera bidali".
- 12:30 Geuretik Sortuak. "Udalbiltzak Geuretik Sortuak kontatzea eta geure historiak sortzea du helburu, euskaratik eta euskaraz, lau diziplina artistikoren bidez: komikigintza, literatura, antzerkigintza eta zinemagintza".
- 13:30 Elkarririk irakurritz (Oparia*): Maialen Akizu, Oier Guillan, Nerea Loiola. Moderatzailea: Maitane Perez.

Sutegin:

- 16:30 Poesia dramatizatu (Udarregiko LH 5. maila).
- 17:30 "Hamalau" antzezlana: Mikel Martinez.
- 18:00 Hitzak aurrekari: Ainhoa Urien, Oihana Iguaran, Iruari Altzerreka.
- 19:00 Kontzertua: Habiak Taldea.
- 20:00 Frontoian: EstherSoundSisterDJ.

Anfitrioia:

Itxaro Borda.

Informazio gehiago:

booktegi.eus

2025eko udal aurrekontuak aurkezteko bilera sorta

Aginagan eta Kalezarren egingo dituzte lehen saioak, urriaren 29an asteartea. Azaroaren 12ra arte luzatuko dira aurkezpen bilerak.

Herri honek erronkak zenbaitan zehazten dituzten udal aurrekontu berriak, datorren urtekoak diseinatzeko lanean ari da udal gobernu taldea. Landutako proposamena jendaurrean aurkeztera doaz, aurreko urteen ildotik, Usurbilgo herri eta auzoetan.

Bederatzi bilera guztira

Guztira, bederatzi bilera iragarri dituzte, urriaren 29an hasi eta azaroaren 12ra arte luzatuko direnak. Saio hauek guztietan, 2025eko udal aurrekontuen proposamena aurkeztuko diete hitzordu hauetara joandakoei. Horrez gain, ekitaldiok "tokian tokiko gaiez hitz egiteko ere ba-

liatuko dira", herritar eta eragileen ekarpenak biltzearekin batera.

Hitzordu guztiak arratsaldetik 18:00etan abiaraziko dituzte. Segidan duzue bilera erronda honen zehaztasunen berri.

Azaroaren amaieran onartu nahi dira

Udaletik aditzera eman dutenez, urteberriko aurrekontuak azaroa amaierako osoko bilkuran, hau da, aldaketarik ez bada, azaroaren 28koan hasieraz onartu asmo dituzte, "hala, abenduan jendaurrean jarri, eta 2025 hasieran martxan egoteko moduan egon daitezzen. Herri-auzoetako bilerekin



Bederatzi bilera iragarri dituzte datozen asteetarako.

batera, oposizioko alderdiek ere tartea izango dute proposamena aztertu eta ekarpenak egiteko".

2025eko udal aurrekontuak aurkezteko bilerak

• Urriak 29. Aginaga (Eliza Zaharra) eta Kalezar (Pelaioenea). 18:00.

• Urriak 30. Munalurra (Eguzki) eta Santuenea (frontoi ondoko lokala). 18:00.

• Azaroak 5. Atxegalde (Udaregiko jangela) eta Txokoalde (Txokoargi). 18:00.

• Azaroak 6. Etxealdia (Potxoenea). 18:00.

• Azaroak 7. Zubieta (Kaxkape). 18:00.

• Azaroak 12. Kaxkoa (Potxoenea). 18:00.

Deitzailea: udal-gobernua.

Espetxeko errealitatea haurtzarotik

Nekane Txapartegi preso ohia- ren "Zenbat lo" album ilustratua aurkeztu zuen urriaren 7an Potxoenean, Usurbilgo Sarek antolaturiko ekitaldiaren baitan. Haur batek kartzelarekin eta preso duen amarekiko duen hartuemana du hizpide argitalpenak. Errealitate hau pairatu duten haurren,

tartean usurbildarren oroime- nean egin zuten azpimarra antolatzaileek hitzorduaren hasieran.

Mobilizazioa

Usurbilgo Sarearen hurrengo mobilizazioa astebete barru izango da, urriaren 25ean 20:00etan Mikel Laboa plazan.



'Zenbat lo' album ilustratua aurkeztu zuten urriaren 7an Potxoenean.

Antxeta
TABERNA
egunero irekitzen dugu!
eguneko menua · asteburuko menua
oilasko erreak, ogitartekoak, razioak...
paellak enkarguz!
943 54 43 12 Zubiaurrenea 6, Usurbil.

Uraitz, s.l.
Igeltseritza
Orokorra
693 059 392
uraitz@uraitz.com USURBIL

Patxi
bazkariak EGUNERO
afariak ostirala eta larunbata
© 943 362725 · © 688 690 361

URDAINTZI S.L.
Eraikuntzak
649 43 54 75
943 36 72 64
IT-ak egiten dira
ERAIKUNTZAK-OBRAK-ERREFORMAK

MERKATU TXIKIA

EXEBITZAK

ALOKAIRUAN

Andatza tabernako jabea 3 logeladun pisu baten bila dabil 627 841 927

San Esteban kalean 31m² lokal bat alokairuan. Bulego edo kontsulta bezala erabiltzeko egokia. 655735715.

Bi logelako pisu bila nabil. Presazkoda: 643 022 475.

Neska edo emakume batentzako logela bat daukagu alokatzeko Usurbilen. 609 647 728.

Oztopo arkitektonikorik gabeko etxebizitza txiki baten bila gabiltza. 627184674

Lursail ez urbanizagarri baten bila nabil. 617 771 303.

MOTORRA

SALMENTA, GARAJEAK

Seat Arona Style salgai, 2 urte, 10.000km. Beti garajejan egon da. 620098748

IRAGARKIA JARTZEKO:

NOAUA:IKO BULEGOTIK PASA

ERREDAKZIOA@NOAUA.EUS

943 360 321

Garaje itxia salgai herri sarreran. 646 601 947 (18:00etatik aurrera).

Afiziozko egur lanetan aritzeko garaje edo lokal baten bila nabil Usurbilen. 722 248 869.

LANPOSTUAK

LAN ESKAINTZAK

Andatza tabernan sukaldari bila gabiltza: 627 841 927

Pertsona bat bilatzen dut, DBHko ikasle bati egunero klase partikularrak emateko. 647742588

- Asteleheneko 12:00ak arte jasotako iragarkiak bakarrik iragarriko ditugu.
- Iragarki berriak sartu ahala, zaharrak ezabatuko ditugu.
- NOAUAK ez du argitaratzen diren iragarkien ondorioz sor daitezkeen operazioen erantzukizunik.

Saizarren zerbitzaria behar da, ostiral iluntzetik igande arratsaldera arte lan egiteko. 649 844 727.

Aginaga sagardotegian txotx garaian larunbat eguerditan zerbitzaria behar da. 943 366 710.

LANPOSTUAK

LAN ESKAERAK

Etxeko lanak / zaintza lanak egiteko prest dagoen neska bat naiz. Goizez (9:00-14:00) zein arratsaldez (16:00-21:00) aritzeko prest. 609647728

Pertsona helduak zaintzeko edo garbiketa lanak egiteko prest. Orduka edo interna moduan. 628 459 625

Pertsona helduak zaintzen, garbiketarako egiten izan elkarte zein etxe partikularretan, lan bila nabil. Esperimentzia daukat 631 654 743.

Emakume bat, interna bezala, lan egiteko prest, etxeko lanak edo adinekoak zaintzen. 624744514.

Astean zehar klase partikularrak emateko prest nago, LH zein DBHko ikasleei, astean pare bat orduz. 684070756

BESTELAKOAK

Ikeako sehaska salgai, koltxoirik ez dauka (50 euro). Koltxo eta ohe-jantziekin osatutako sehaska txikia (20 euro). Hamaka bere kaja eta guzti (50 euro). Uppababy ahulkia salgai (100 euro). Xehetasun gehiagorako: 652 765 583.

GUARDIAKO FARMAZIAK

EGUNEZ

Osteguna, 17	KNIESE JAUREGUI, LEIRE San Francisco, 1, Lasarte-Oria / 943 36 65 67
Ostirala, 18	GANDARIAS-URIBE: Iñigo Loiola 9, Lasarte / 943 01 95 21
Larunbata, 19	GIL MARTIN Kale Nagusia 24, Lasarte / 943 36 07 08
Igandea, 20	GIL MARTIN Kale Nagusia 24, Lasarte / 943 36 07 08
Astelehena, 21	DE ORUE Jaizkibel plaza 2, Lasarte / 943 36 26 52
Astearte, 22	DE MIGUEL BARCO Kale Nagusia 32, Lasarte / 943 37 11 51
Asteazkena, 23	LASA SUQUIA Kale Nagusia 42, Lasarte / 943 36 17 74
Osteguna, 24	GIL MARTIN Kale Nagusia 24, Lasarte / 943 36 07 08
Ostirala, 25	ACHA-ORBEA Hipodromo etorbidea, 6, Lasarte-Oria / 943 36 35 49
Larunbata, 26	LASA SUQUIA Kale Nagusia 42, Lasarte / 943 36 17 74
Igandea, 27	LASA SUQUIA Kale Nagusia 42, Lasarte / 943 36 17 74

GAUEZ EGUNERO

(22:00etatik 09:00etara)

SABORIDO RODRIGUEZ, MIREN: Plaza Mañe 11 Flaquer, 6 Hernani 943 57 64 77

Gipuzkoako farmazien egutegia eskura izateko:

COF Gipuzkoa aplikazioa deskargatu Google Play-etik edo AppStore-etik.

Pilota partidak

Urriak 18, ostirala

17:45 Usurbilen:

Infantilak 3. Maila, Gipuzkoako errendimendu txapelketa eskuz banaka:

- Pagazpe (Ugarte)
- Gazteleku
- Pagazpe (Etxabe)
- Oiarpe

Kadeteak, Gipuzkoako eskuz

binakako txapelketa:

- Pagazpe (Jauregi-Indakoetxea)
- Tolosa

Eskubaloia Oiardon

Urriak 19, larunbata

• 10:00 Kadete neskek:

-Usurbil KE-MEK Eibar B

• 11:30 Jubenil mutilak:

Usurbil KE-Hettich ZKE

• 17:00 Jubenil neskek:

-Usurbil KE

-Astigarragako Mundarro KE

Urriak 20, igandea

• 09:45 Kadete mutilak:

Usurbil KE B-Ereintza Beissier

• 11:30 Kadete mutilak:

Usurbil KE A-MEK Eibar B

Futbol partidak

Urriak 19 larunbata, Haranen

• 9:00 Infantil neskek:

Usurbil FT-Aiztondo

• 9:00 Infantil neskek:

Usurbil FT B-Antiguoko K.E.

• 10:30 Infantil mutilak:

Usurbil FT-Zumaiako F.T.

• 12:00 Kadete mutilak:

Usurbil FT-Urnieta C.D. B

• 15:30 Infantil txiki:

Usurbil FT-Ostadar S.K.T.

• 17:30 Ohorezko jubenilak:

Usurbil FT-Vasconia C.D. B

Urriak 20 igandea, Haranen

• 9:30 Infantil mutilak:

Usurbil F.T. C-Intxurre K.K.E. B

• 11:30-13:30 Futbol Eskola:

Usurbil F.T.-Orereta Kafea

Urriak 19 larunbata, kanpoan

• 12:00 Infantil mutilak, Urnietan:

Urnietia K.E.-Usurbil F.T. B

• 12:00 Kadete neskek, Hernanin:

Hernani C.D.-Usurbil F.T.

• 15:30 Erregionalak, Andoainen:

Euskalduna B-Usurbil F.T. B

• 16:00 Gorengoan neskek,

Legazpin:

-Ilintxa S.D.

-Usurbil F.T.

• 18:00 Jubenilak, Urnietan:

-Urnietia K.E. C

-Usurbil F.T. B

Urriak 20 igandea, kanpoan

• 19:35 Gorengoan mutilak,

Martutenen:

-Roteta C.D.

-Usurbil F.T..

Urte askotarako!

Zorion itzazu senitartekoak eta lagunak orrialde honetan:

Posta elektronikoa

Mezua bidali erredakzioa@noaua.eus helbidera, eta idatzi: izen-abizenak, urtebetetze-eguna eta nahi duzun testua.

Bulegoa

Etor zaitez gure bulegora edo telefonoz deitu: 943 360 321.

Oharra:

Asteleheneko 17:00ak arte jasotako zorion-agurrak bakarrik iragarriko ditugu.


AGENDA

EMAIGUZUE ZUEN EKITALDIEN BERRI ASTELEHEN EGUERDIA BAINO LEHEN. Tel.: 943 360 321 / erredakzioa@noaua.eus

OSTIRALA 18

USURBIL Oskar Alegriaren "Zinzindurrunkarratz" film proiektzioa Sutegin

Oskar Alegria zuzendaria bertan izango da. Sarrerak alde aurretik salgai 6 eurotan usurbilkultura.eus webgunean. Bazkideek 4 eurotan eskuratu ahal izango dute sarrera bat NOAUA! K.E.-ren egoitzan. 19:00 Sutegin.



Oskar Alegriaren "Zinzindurrunkarratz" filma ostiral honetan ikus ahal izango dugu Sutegin. 19:00etan hasiko da proiektzioa.

LARUNBATA 19

SANTUENEA Bertso-afaria Ibai Ondo elkarte

Maialen Lujanbio, Uxue Fernandez zein Unai Muñoa bertsolariekin batera. 20:30 Ibai Ondo elkarte.

IGANDEA 20

USURBIL Buruntzaldeko 16. Ibilbideen Eguna

Buruntzaldea eskualdea eta bere landa-ingurune naturala ezagutzeko aukera. Usurbilgo abiapuntuak Mapilen eta Santuenean egongo dira. Egun osoko jardura.

AGINAGA Bertso ibilaldia sagastietan barrena

Maialen Lujanbio eta Andoni Egaña bertsolariekin, eta Jakoba Errekondoren azalpenekin. 10:00 Aginagako frontoian.

"Zinzindurrunkarratz", Oskar Alegriaren film berria

Ahaztutako bide bat, Super-8 kamera zahar bat eta Paolo izeneko asto bat. Hiru osagai hauen inguruan osatu du film berria. Garai bateko bizimodua gogora ekartzeko ahalegin poetiko bat.

Oskar Alegria zinegileak Nafarroako Artazura itzultzea erabakia du. Familiak etxean gordeta zuen Super-8 kamera zaharra eskuetan hartu eta bere aiton-amonek trashumantzia urratutako bideen bila joko du. Paolo astoaren konpainian, jada existitzen ez den mundu bat irudikatu nahian.

Kamera ordea zaharra da, hain zaharra, soinua errejistratzeko ahalmena galdu duela. Ahaztutako bidea eta kamera isila bihurtuko dira, Paolo izeneko astoarekin

batera, oroitzapenez, galderez eta isiltasunez betetako bidaia baten protagonistak.

'Emak bakia baita' filmaren egilea

Emak Bakia baita (2012) filmarekin egin zen ezagun Oskar Alegria. Nazioarteko jaialdi askotan eskaini zuten eta 17 sari irabazi zituen. Zumiriki (2018) bere bigarren film luzeak, Veneziako Orizzonti Mostran estreinatu zen eta fikziozkoa ez den film onenaren saria irabazi zuen Sevillako Zinemaldian.

Zuzendariarekin solasean

Oskar Alegria zine zuzendaria Sutegira hurbilduko da eta proiektzioaren amaieran, sor-kuntza prozesuaren inguruko xehetasunak eskainiko ditu.

Sagar eta Sagardo Kultura**Urriak 17, osteguna**

• 18:30 Sagar dultzea egiteko tailerra Aitzagan.

Urriak 20, igandea

• 10:00-13:00 Bertso ibilaldia Maialen Lujanbio eta Andoni Egaña bertsolariekin. Aginagako frontoitik abiatuta.

Urriak 24, osteguna

• 18:00-19:30 "Izotz sagardoa zer da?" ikastaroa eta dastaketa Aginagako Eliza Zaharrean, Egoitz Zapiainekin.

Azaroak 14, osteguna

18:00-19:30 "Sagastien bioaniztasuna: sagarrondoek zein bizilagun dituzte?", Iñaki Sanz Azkuerekin.

Azaroak 28, osteguna

• 18:00-20:00 "Bizio sagardogilearekin dastaketa komentatua", Aginagako Eliza Zaharrean.

Izen-ematea:

sagardoa@ni.eus
630 938 027.

Okindegia-Gozotegia
LABE-GOXO

ANDATZA TABERNA

EGUNEKO MENUA
ASTEBURUKO MENUA
KARTA
RAZIOAK
OGITARTEKOAK

8:00-20:30 Astelehenetik - Asteazkenara
8:00-23:00 Ostegunetik - Igandera

Kalezar Auzoa 12, OB, USURBIL. Tel 943 36 04 66

BORDATXO
taberna
Pintxo Bereziak
943 37 10 42

booktegi jaialdia 2024

URRIAK 26
11:30etan Zumarte Musika Eskolan

Euskarazko literatura sustatzeko jaialdi honetan, **POESIA ITZULERAN** parte hartzeko gonbidapena da honakoa.

Eman izena Sutegi Liburutegian eta bidali zure poema ondorengo helbidera (izena emateko azken eguna urriak 17).

biblioteka@usurbil.eus

Egitaraua ikusgai: <https://www.booktegi.eus/liburuak/booktegi-jaialdia-2024/>

antolatzailea:



laguntzaileak:



Bertso-Ibilaldia Usurbil inguruko Sagastietan barrena

URRIAK 20, IGANDEA

Aginagako Plazan

10:00tan DOAN



Hizketako gaiaren gidaria

Jakoba Errekondo

Bertsolariak

Maialen Lujanbio

Andoni Egaña



Alkartasuna Kooperatiba Atallu industrialdea 26, Usurbil 943 361 114 www.alkartasuna.eus alkartasuna@usurbil.com

ADI, USURBILDAR!

GERO ETA BOTERE GEHIAGO ARI
DA PILATZEN MERKATARITZA
KATE ERRALDOIEN ESKUETAN, ETA
HORI MEHATXU ZUZENA DA GURE
HERRIKO DENDA TXIKIENTZAT,
LEHEN SEKTOREARENTZAT
ETA TOKIKO EKONOMIAREN
BIZIRAUPENARENTZAT.

BAINA, ADI! EROSLE TXIKIEN
IRAULTZA GURE ESKU DAGO.
BABESTU ZURE HERRIKO
MERKATARIAK, SUSTATU TOKIKOA
ETA EROSI BERTAN!

EROSLE TXIKIEN
IRAULTZA!



BAT HASI, BESTEAK SEGI,
GUZTIOK BULTZA!
BERTAKOA GAL EZ DADIN
EGIN DEZAGUN IRAULTZA!